

LARRAMENDI, MOGEL, ZAMAKOLA, ZARATE ETA GAURKOAK

"Deia" Egunkarian irakurri dogu M.A. idazlea dala idazpuru ori edo antzekoa daroan lana, eta auxa izan da lenengo burura etorri jakuna: Egundo'ko poza artuko eban gure Mikel Zarate'k idazpuru ori irakurteko aukera izan ba'leu. Bere ametsik gurena zan, izan be, olako idazle ospetsuen artean bere izena ikusi al izatea.

Dana dala, idaz-lanak berak dakarren elerti gaia jakin-garria dan ezker, bizkaieratu eta ZER'en irakurleentzat emen argitaratu egingo dogu.

"Manuel Larramendi, Juan Antonio Mogel, Joan Antonio Zamakola eta Mikel Zarate'ren bizitza ta lanen barria emoten da Eusko Jaurlaritzaren "Bidegilleak" bilduma'ko azken lau liburusketan.

Belaunaldi gazteak zarragoen barria izan dagien, argitaratzen dau Izkuntza-Politikarako Idazkaritzak, Joseba Intxausti'ren zuzendaritzapeau.

Manuel Larramendi (1690-1766) bizitza ta lanen barria, Andrés Alberdi'k eskintzen dauku. Juan Antonio Mogel (1745-1804) Xabier Altzibar'ek. 1758'an jaio zan Zamakola'k egin ebana, Roman Basurto ta Xabier Altzibar'ek argitzen daukue. Mikel Zarate (1933-1979) lezamarraren lanak, barriz, Joseba Butron'ek aitatzen daukuz.

"Bidegilleak" bilduma ezaguna da lendik be, Orixe, Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena ta abarren barria emonaz sortu zan-eta.

Liburutegietara, Ikastetxeetara ta abar zabaltzen dira. Gaiñera idazki laburrez eta argazkiz, era atsegiñean argi-

taratzen diran liburuska oneik, edozein euskaltzalek aukerari izan dagizan.

Orrelan, polito-polito, euskal elertiaren kondaira osotzen diardu Bidegilleak Bilduma'k.

Asmamenezko elertia eta saiaketa-girokoa urri agiri dira gure artean. Argitaldariak be ez dabe olakoak argitaratzeko gogo aundirik, gitxi saltzen diralako-edo.

Dana dala, ba-dira olako giroan, diran liburuak be gaur gure liburutegietan...

Itzulpenak argitaratzen saiatzen da Aita Santi Onaindia, eta aspaldion ainbat liburu argitaratu dauz Kurutzeko Donibane'k idatziak.

Elebarrien munduan, Urtero argitaratzen dau elebarri luze ta mamintsuren bat Zubiri'tar Iñaki'k. Bide orretatik doaz Zubikarai'tar Augustin'en liburuak be, urtero baten bat, eta gaiñera errien kondaira agertzen dabenak.

Olerkarien munduan, oraintsu agertua dogu Solozabal'dar Paulin'en liburu.

Kondaira-saillean eta gipuzkoeraz ale ederretan argitaratu dau Latiegi'tar Bixente'k ELeizearen Kondaira.

Izadi-arloan, sakona ta zeatza da Jaka-Kortajarena'ren Erleai buruzko liburu, baita idazle beraren oroitzapenak gogoratzen daukuzana.

Eta laster agertzeko diran olako lan asko dira gure irarkoletan. Elertiaren urritasuna ugaria biurtu daiten ale-giña egiten da gaurko euskaldunen artean.

GAMIZ'ek

